

# ...eta kitto!


743 zkia. 2010-XII-3

ASTEKARIA

TOKIKOM



# 40 urte aintzat hartu gabe



Clinica Oftalmologica  
**RECALDE**  
Oftalmologia Klinika

## PRESBIZIAREN KIRURGIA

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)





**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekararen E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Felix Morquecho

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHTA:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*)k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**GOZARO.-** Era gozoan, eztki. "Gozaro, ondo esanaz, itxuli eben etxera".

**GRANUJA.-** Mutil koskorra. Ez dauka zentzu peioratiborik. "Zure granujia bialdirazu, emon deixorazen sagar batzuk".

**GUEN/GUREN.-** Muga, ertz. Baserri taldeetan, gorengoa. "Legorren guena, Finis-terrae esaten dan lekua".

**GUREN.-** Esnegaina. "Basarriko esniak bestiak baiño guren lodixagua eukitzen dau".

## ESKUTITZAK

### EUSKARAREN EGUNA ABENDUAK 3-AN BAKARRIK?

Azken urteotan hainbat ikerketa eta ebaluazio egin dira ikastetxeetan ikasterearen emaitzak aztertzeko. Eta horietan guztietan agerian geratu da egungo hizkuntza ereduaren sistemak ez duela euskalduntzen. Horregatik, hezkuntza arloko eta euskalduntze arloko eragileak, eta euskal jendartearen oro har, aspaldidanik ari dira eskatzen ereduaren sistema gainditzeko eta euskalduntzea bermatuko duen metodologia edo sistema ezartzea gure eskoletan (ikasle euskaldun eleanitzak bermatuko dituen).

Azken azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Sailak egindakoa dugu ikastetxe publiko eta kontzertatuetako 37.000 ikasleren artean, LHko laugarren eta DBHko bigarren mailetan. Bertatik hainbat ondorio esanguratsu eta larri ateratu daitezke gainbegiratu azkar batean. Maila kaxkarrenari begiratzen badiogu, ikus dezakegu lehen hezkuntzan %27,1ak ez duela "hasierako maila" gainditzeko, eta bigarren hezkuntzan % 33,5ak; D ereduaren bertan, DBHn %22,5ak "hasierako maila" dauka, A ereduaren berriz, hamarretik zortzi ikasleek ez du euskararen nahikoa ezagutzarik. Hizkuntzaren "maila aurreratua" begiratzen badiogu, ikus dezakegu LHn % 29,2k ematen duela maila hori, eta DBHn soilik %24,1. Isabel Celaa anderearen ustez, emaitza hauek 2009koekiko hobekuntza adierazten

dute, baina agerraldian adierazi zuenez, eskolak ezin du izan euskararen ezagutza bermatzeko tresna bakarra, eta beste hainbat faktorek ere eragiten dute.

Hezkuntza Sailaren azterketa hau Euskararen Eguna gertu dugunean ezagutu dugu, eta honek aukera ematen digu azken hausnarketa hauek egiteko. Batetik, eskubideak ditugu (herri baten eskubidea bere hezkuntza sistema antolatzeko bere kultura eta hizkuntzaren transmisioa eta garapena ziurtatuz; eta herritarren eskubideak, legeetan jasotako, euskararen ezagutza bermatua izateko). Bestetik, betebeharrak (administrazioen obligazioak bermatzeko euskalduntzen duen sistema, besteak beste). Eta azkenik, egin beharrak (euskaldunok geure eskubideak bermatuak izateko, administrazioekin bat eginda, edo ez egunero geure esparruan egin beharrekoak).

Euskararen eguna izan dadila, jendarteko beste esparruetan bezalaxe, eskoletan ere euskal hiztunon eskubideak aldarrikatzeko eguna, administrazioen jarrera salatzen eta administrazioak behartzeko eguna, eta eskola komunitate osoa (ikasle, langile irakasle zein ez irakasle eta guraso) elkarrekin lanean jartzeko eguna. Hurrengo 364 egun bezalaxe.

LAB IRAKASKUNTZA

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Gizonak, homosexualak edo heterosexualak izan, falokratak eta sartzaileak dira. Nik neskei galdetzen diet: 'Badakizu zer den gizonetzko bat harreman batean? Ba egin kontu zer izan daitezkeen bi!' Harremaneko bigarren pertsona ere gizonetzkoa izateak gauzak ez ditu arintzen. Bestalde, emakumezko eta gizonetzkoen arteko nortasunaren arloan, berdin gisa begiratu behar diogu elkari, eta ez eskubide eta betebeharren jabe gisa. Jendaurrean hori onartuta ere, etxe barruan? Gizon jator bat ezagutzeko, haren bikotekidea ezagutu nahi izaten dut; eta haien etxera joan, mahaia nork zerbitzatzen duen ikusteko"

(Jose Angel Lozoya, sexu hezitzailea)

"Legeak baimentzen duen inkomunikazioko erregimena zaindarien eta atxilotuaren arteko harreman ona bideratzeko da eta, agian, baita elkarrekin mus partidak jokatzeko ere, harmoniazko tratua ziurtatzeko. Atxilotuta-momentutik bertatik, presoaren gizarteratze prozesuari ekiteko, giza eskubideak errespetatu eta presoaren duintasuna zainduz. Eta, hori guztia lortzeko, inkomunikazioa da, zalantzarik gabe, sistemarik justuena, zorrotz eta perfektuena. Lekukorik ez dagoen tokian, balizko torturaztailearen fokuko argia da bakarra; gainerako guztiak, itsu eta inkomunikatuta nahi gaituzte"

(Andu Lertxundi, idazlea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

# ...eta Euskara E Gabon KATAI

KATEA:  
10,60 euro

ZINTZILIKARIOA:  
16,50 euro

SOKADUN  
ESKUMUTURREKOA:  
7,50 euro

KAUTXOZKO  
ESKUMUTURREKOA:  
37,75 euro

KATEA:  
10,60 euro

ZINTZILIKARIOA:  
30 euro

BELARRITAKOAK:  
25 euro



KAMISETA BERTSOLARI BELTZA (MUTILA):  
19 euro

KAMISETA BERTSOLARI LILA ETA BELTZA (NESKA):  
22 euro

KAMISETA BERTSOLARI MOREA (MUTILA):  
19 euro



AMANTALA (LAUKIAK):  
T: 1, 2, 3, 4  
32 euro

AMANTALA (OTSOA):  
T: 1, 2, 3, 4  
29,50 euro



ARGAZKI MARKOA:  
8 euro

ARGAZKI ALBUMA: 12 euro

ARGAZKI MARKO HIRUKOITZA:  
12 euro

HELBIDE-LIBURUA:  
8 euro

OHARRAK:  
8 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Euskara E  
Datorren ASTELEHENETIK aurrera, 10.00etatik 13.00etara /

## IKUSI, AUKERATU eta ENKATU

# kitto! Elkartearen Bulegoan Metako Katalogoa

Katalogoak dituen irabaziak euskera sustatzen erabiliko ditugu

HAUTSONTZIA:

6 euro

BURDINEZKO

MAHAL

GAINEKOA:

11,75 euro

TIRAGOMA:

3 euro

KARRAKA:

4,30 euro

KATILUA:

7,10 euro



ARBOLARAKO  
OLENTZERO:

4 euro



ERRETXINAZKO ONGI ETORRI:

6 euro






ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)

16.00etatik 20.00etara

## ARGUA EGIN!

DISKA ETA DVDAK



Euskara Elkarte





# autuan

## GURUTZE GORRIXAREN KANPAINA

Etxe barruan gertatzen diran istripuak saihesteko asmuarekin kanpainia abiarazi dabe Gurutze Gorrikuak, horretarako pegoretan kartelak pegautu. "Portal solidario" proiektuari jarraituta, Eibarko 837 pegoratan pegau dituen karteletan bizilaguneri etxe barruan arreta berezita ipintzeko eskatzen detse, arriskuak antzemateko klabe batzuk emonda.

## KALEETAN KANTUZ

Abenduaren 9xan eta 23an izango dira Kaleetan Kantuz-erako entseguak, 19.30xetan San Andres elizako lokaletan. Bixen bittartian, abenduaren 11n urtengo dabe kantuan abesbatzakuak, 19.30xetan Untzagatik hasiko dan kalejiran.

## Barrenetxetarrak saritu ditue

HECTOR BARRENETXEA ETA ROSA GISASOLA, BARRENETXE OKINDEGI ETA PASTELERIXA KATEKO JABIAK Urteko Dendarixari Sarixa jaso barri dabe Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren eskutik. Barrenetxe panaderixen jatorrixa Zugarramurdin billau bihar dogu, XVII. gizaldixan: Etxenikea basarritik Donibane-Lohitzunera, Lesaka eta Donostiara zabaldu eben euren jardueria eta Errege Famielixarendako ogixa egittera ailegau ziran. Arbasuengandik tra-



Saritutakuak euren diplomekin Ganberak antolatutako ekitaldixan.

diziñoz jasotako ogibidiari segidu detsen andra-gizonak Eibarraren be jardun eben biharrian, 1985ian Donostiara juan ziran

arte. Gaur egunian 8 denda, obradore bi eta sukalde bat dake martxan eta 60 laguni biharrara emoten detse.

## LAB-ekuak Mutualian protestan

OIN DALA EGUN BATZUK KONTZENTRAZINA EGIÑ EBEN LAB SINDIKATUKUAK, "orohar mutuak eta bereziki Mutuialiak beraien jarrera

tamalgarriarekin gizartiari iruzur egitten dihardue-la" salatzeke. Sindikatuko ordezkari xen berbetan, "asko dira lan istripu batengaittik edo biharrari lotutako patologixaren batekin mutuara joten daben bihariñak, baiña mutuetan sendatu barikeru altak emoten dihardue eta gaixotasun profesionalak dittuenak Osakidetzara bidaltzen dittue". Horiek guztiak salatzeke eta "Barrena kaleko Mutuialiako bulegoko mediku baten ahotik entzundako iraiñengaittik protestatzeko" ordu bete emon eben bulegoko atian.



etxolajatetxea@hotmail.com  
Erreserbak: 943-207019  
Txirio kale, 1

# etxola

## JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak  
Empresa eta taldeentzako aurrekontuak

# 66553

...eta kitto!-ko

## GABONETAKO LOTERIA

salgai duzu:

- Mujika harategia
- Urkizu prentsa
- Bolintxo
- Zabaleta okindegia
- Narrua konplementuak
- San Andres gozotegia
- Askasibar kirolak
- Kultu taberna
- Valenciaga jantzidenda
- Udal Euskaltegia
- AEK Euskaltegia
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Untzaga prentsa
- Dibutec fotokopiadenda
- Zubi-Gain kafetegia
- Bankoa
- Correos
- ...eta kitto!

Loteria hartzaiileen artean, abenduaren 15ean GABON-OTARRA zozketatuko da

# Izadi

## LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

# Radio Eibar

CADENA SER

## 104,0 FM



Koldo Martínez Garatek "El paradigma navarro" hitzaldixa emongo dau hillaren 9xan.

## Nafarroako historia aztergai

**ARRATE KULTUR ELKARTEAK, NABARRALDEK ETA EINABARREK ANTOLATUTA, NAFARROARI BURUZKO HITZALDI ZIKLUA** antolatu dabe. Lehelengo saia Koldo Martínez Garatek eskinduko dau hillaren 9xan, "El paradigma navarro" izenburuko hitzaldixarekin. Abenduaren 16xan, barriz, Gipuzkoaren jatorria" izenburuko DVDiaren

proiekziñua eskinduko dabe eta, jarraixan, mahai-ingurua egingo da, Beñi Agirrek zuzenduta. Eta hitzaldi zikluarekin amaitzeko, abenduaren 23an beste proiekziño bat egingo da: "1512, Nafarroaren konkista". Jarraixan garatuko dan mahai-ingurua Angel Rekaldek gidatuko dau. Ekitaldi guztiak Kultun izango dira, 19.00etan.



Lekualdaziaren aurkezpenian egindako argazkixa / SILBIA HERNANDEZ

## Kzgunia Portalera eruango dabe

**OIÑ ARTE KARMEN KALIAN MARTXAN DAGUAN KZGUNIAK ETXE BARRIXA IZANGO DAU** datorren urtetik aurrera: Portalean, liburutegixaren aldamenian egongo da Kzgune barrixak eta, Eibarko biztanlerixarekin bat datorren planari jarraituta, gun bi izango dittu: batian ikastaruak eta formakuntzarekin lotutakuak garatuko dira eta bestian, barriz, beste barik nabigatzen jardun nahi dabenak

ibiltzeko aukeria eskinduko dabe. Oiñ arteko moduan, egun osuan arduradun batek jardungo dau bertan biharrian, laguntasuna bihar dabeneri arreta eskintzen. Bretxa digitalari aurre egiteko asmuarekin 2001ian jaixo ziran KZguniak beste hutsune batzuk betetzen jua dira eta, bestiak beste, hillero eskintzen dittuen ikastarueri esker internet herriarreri gerturatzen juatia lortzen dihardue.

# anzorik arzo



## "Formen dantza" inaugurata

**Astelehen arratsaldian, San Andres egunaren bezperan inaugurau eben José Zugasti eskultoriaren "Formen dantza" lana.** Kezka dantza taldeko dantzariak, txistulariak lagun duta eskindutako dantzarekin geratu zan inaugurata alkarrekin gurutzatzen diran burdiñezko aro batzuk osatzen daben eskultura. Lana Alfa-San Andres etxe barrixetako parkian ipiñi dabe eta Zugastik berak inauguraziñuan esplikau ebanez, "sasoi batian hamen inguruan Kakalardokua izeneko zubixa eguan. Lautada bihurtu da tokixa ointxe eta, Eibarren espazio larregi ez daguala kontuan hartuta, eskultura erosua eta bertatik pasatzeko trabarik sortzen ez dabena" egitten ahalegindu da. Miguel de los Toyos alkatiaren parte-hartzia euki eban ekitaldixan artistiak Alfa Arteko bihariñeri eskerrak emon zetsazen, "eskulturiarekin egindako biharra gaittik" eta Amenabar eta El Corte Inglés-ari, "emon daben diruarengaittik".


## eibar kaleka

### Merkatu kalia

Blas Etxeberria kaletik behera, Errebal kaliarekin bat egitten daben kaliari esaten detsagu Merkatu kalia, oin dala gitxirarte aldamenian eguan Merkatu Plazia goguan. Eraikin bakarrak betetzen dau kaliaren albueta bat: Coliseo antzokixak. Beste aldian Errebalgo parkiña dago oin momentuan.

**Pegora kopurua: 0**

**Eroldatutakoak: 0**



asteko  
5.000  
datua

pieza inguru dakaz Eibarko Museuak eta oindio katalogatzeko prozesuan dagoz 1.000 baiño gehiago: 3.900 elementu registrauta dagoz honezkerok; horretatik 1.690 fondo dokumentaletakua dira eta beste 2.200 armagintzarekin loturia dakenak.

## autuan

### HEZIKETA-PLANA DEBEGESAN

Europa mailako proiektu pilotuari jarraituta, "Eraiki zure etorkizuna" izenburuko heziketa-plana gauzatuko dabe Debegesan. Lan munduan sartzeko bidia errazteko helburuari jarraituko detsan plana 50 urtetik gorakundako pentsautakua da. Interesa dakenak abenduaren 10a baiño lehen Debegesarekin harremanetan ipiñi biharko dira, 943820110 telefono zenbakira deittuta edo ekintzaile@debegesa.com helbidera idatzita.

### EA-KO LOTERIXIA

Eusko Alkartasunak bere afiliatu eta lagunei aditzera emon nahi detse Gabonetako Loterixarako partizipaziñuak salgai ipiñi diittuala, 14.020 zenbakixarekin zozketan parte hartzeko. Hillaren 18rako loterixia saltziari lagako detsenez, interesa dakeneri lehenbailehen erosteko eskatu nahi detse.

## Barrakak eta argixak Gabonetarako girotzeko

**GABONETAN IPIÑIKO DIRAN BARRAKETAN IBILTZEKO 100.000 BONO DUAN** banatuko dittue Eibar Merkataritza Gune Irekiko dendarixak, aurtengo Gabonetako Kanpaiñaren barruan. Iazko arrakastarekin animauta, aurtien barrakak gehixago ekartzeko asmua dake eta, gaiñera, egun gehixagotan egongo dira martxan: Txaltxa Zelaixan 7 urtetik gorakundako bost atrakziño egongo dira hillaren 18xan hasi eta urtarrillaren 9ra arte. Eta egun horretan be, baiña anbulatorixoko parkian, txikixendako karrusela egongo da martxan. Aittatutako dendetan erosketak egittian duan banatuko diittuen bonuak hillaren 18xan, 20xan, 21ian, 22xan, 23an, 24an, 27xan, 28xan, 29xan, 30 eta 31n erabili ahal izango dira. Bonua ez dakenak be ibilli leikie barraketan, egun horretan euro bat pagauta. Beste egunetan, barriz, ez da bonorik hartuko eta barra-



Iazko arrakastia ikusitta, aurtien egun gehixagotan eta barrakak gehixago izango dira. / S.H.

ketarako tiketak 1'5 eurotan salduko diittue.

### Txaltxa Zelaixan eta Urkizun

Urkizun be ipiñiko diittue barrakak, abenduaren 23tik urtarrillaren 4ra bittartian (29xan ez da barrakarik egongo, merkadillua ipintzeko). Ume txikixendako (urtebete eta 6/7 urte bittartekundako) lau atrakziño egongo dira martxan. Dendetako bonuak Urkizun erabiltzeko egunak hillaren 23a, 24a, 27xa, 28xa, 30a

eta 31 izango dira. Txaltxa Zelaixan moduan, bono barik euro bat pagauko da eta beste egunetan danak 1'5 euro pagau biharko dabe. Aurtengo kanpaiñarako 38.000 euroko presupuestua erabiliko dabe eta, barrakak ez eze, Gabonetako argixetarako dendarixak emongo dabena be horren barruan doia (danera 57.000 euro kostauko dabe argixak eta Udalak 42.000 euro pagauko diitu; beste 15.000 euroak dendarixak ipiñiko diittue).



## Untzagako jubilauren bazkaria

### ZAPATUAN OSPAKIZUN BEREZIXA EUKI EBEN UNTZAGAKO JUBILAU ETXEKUAK:

eguardi partian San Andres elizan ospatu eben mezaren ostian, Arrate Hotelian egindako bazka-

rixan 85 urtetik gorako bazkidieri omenaldixa egin zetsen. Sanandres inguruan eguna jai-giruan emoteko aitzakixa paregabia topau eben parte hartzera animau ziranak.

## Sostoaren zozketia

### SOSTOA ABESBATZAK SANTA ZEZILIA INGURUAN EGINDAKO ZOZKETAKO OTARRAREN IRABAZLIA


erretratuan pozarren ikusten dozuen Gantxegi anderea izan da, berak zekan eta zozketan sarituta urten zan kolore horiko txarteletako 2.598 zenbakixa. Gaiñian diittugun jaixetarako primeran etorriko jakoz otarra betetzen daben produkto goxuak, seguru. Zorionak!






*Ohikua izan da gurian, oiñ arte behintzat, banandutako gurasuen kasuetan seme-alabak amarekin geratzia. Gehixenetan, txikixak badira behintzat, dependentzia haundixagua dakelako amarekiko. Azken aldixan, partekatutako custodia indarra hartzen juan da; tratu txarrak tartian egonda, eskubidia kentzia be aztertu da.*

## Banandutako gurasuen seme-alabak, zeñekin hobe?



**SONIA GÓMEZ**  
32 urte  
vending saltzailia

Uste dot amarekin egon biharko liratekela; halanda be, ez dot txarto ikusten custodia partekatzia, beti be seme-alabak etxian bertan gelditzen badira eta gurasuak badira txandakatzen diranak. Tratu txarrak badagoz tartian, tratu txarrak emon dittuanarekin ezin dira geratu.



**ITZIAR ZULAIKA**  
63 urte  
autonomua

Umiak txikixak diranian, amarekin hobe daguezela uste dot; dana dala, partekatutako custodia ondo dago gurasuak ondo konponzen badira. Hori izango zan idealena baiña beti ezin da. Tratu txarren kasuetan ez dot batere ondo ikusten umiak tratu txarrak emon dittuanarekin egotia.

**OIER GOITANDIA**  
33 urte  
tornerua

Aitta eta ama izateko eskubidia daka umiak: partekatutako custodia izan leike onena. Gurasuak herri desberdiñetakuak badira, korapillotsua ikusten badot be. Tratu txarrekin kontu haundiz ibili bihar gara: probatzen bada, tratu txarrak emon dittuanarekin ez egotia izan leike zuzenena.



**JOSE LUIS ROITEGI**  
62 urte  
jubilaua

Partekatutako custodia ikusten dot egokixena: aitta eta ama euki bihar dittu umiak, bixen ereduia izatia garrantzitsua da. Tratu txarrak egon badira tartian, hor bai, iñolako duda barik esango neuke tratu txarrak emon dittuan pertsonarekin ez liratekeela egon bihar.



**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilbarrista 20 - beheko, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

**Tanatorio eta Errozketa laboa**  
Egoibonari (Signo poligonoari)  
Partikular, mitua eta osaguri etxei zerbitzuak  
Koroak - Eskelak - Urteurrenako irribelak  
Euskal Herri osuko ospitaleetan bertan zaizugu  
Nazio eta Nazioarteko irratidok

**Mugica Errozketa**  
Funtzionario laboa

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

**TXILLARRE EKO DENDA** *zure errosketa ekologikoa etxera*

EIBARREN BANAKETAK,  
ASTELEHEN ARRATSALDETAN.  
Elgoibarko plaza MERKATUAN, GOIZERO.


635 00 84 96  
943 74 20 85  
p.ekologikoak@euskalnet.net  
www.txillarre.es

## Adierazi beldur barik!

*Eibarko Pausoz-pauso taldeak "Adierazi beldur barik" lehiaketaren lehen saria eskuratu zuen zapatuan Bilbon Berdintasun Sareak egun osorako antolatu zuen jaialdian. Lehiaketa Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun Sareak antolatu du eta bertan Euskal Herriko 91 lan aurkeztu dira.*

Lehiaketan forma artistiko guztiak zeuden onartuta eta Eibarko taldeak (Biraka Dantza Taldeko dantzari-erri osatuta) Olatz Ormaetxeak zuzendutako koreografia eskaini zuten. Taldean beste sei dantzari hartu dute parte (Amaia Alkoba, Leire Etxaniz, Maria García, Iraia Ibáñez, Miriam Merino eta Lara Portu), 13 minutuko iraupena duen dantzaldian. "Sasi artean ere bada lorarik" izeneko lana aurkeztu du Eibarko taldeak.

Ekitaldia Emakumeengana-ko Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren ingurukoa zen, Berdintasunarek egindako kanpainaren barruan.



Pausoz-pauso taldeko dantzariak Mari Jose Lasa udal teknikariarekin.

### Lehiaketaren I. edizioa

Adieraz zaitez Beldur Barik! lehiaketa 16 eta 26 urte bitarteko gazteei zegoen zuzenduta, bere bitartez emakumeengana-ko indarkeriaren aurkako jarrerak eta proposamenak sustatzeko ahaleginean eta, horrela, jende gaztea arazo horretara hurbilaz. Horrez gain, portaera sexisten prebentzioa landu da guztiekin eta, erasoaren aurrean, modu aktiboan jokatzera animatu zaie.

## Uni Eibar-Ermua kanpoko ikasleekin harremanetan

Uni Eibar-Ermua institutoak duen teknologia mailaren erakusgarri, Poloniako ikasle bat etorri da Hezkuntza Esparrura informatika praktikak Uni-n bertan egitera. Szymon Starzak da bera eta, aurrez "Uni enpresa informatiko handia" izan arren, erronka berria hartu du te bizkar gainean zentrokoek eta harremanak ingelesez egin beharko dituzte ("poloniarra oraindik ez dugu menperatzen", eura dioten moduan).

Hezkuntza sisteman dauden informatika alorreko heziketa ziklo guztiak ditu Uni-k: goi-mailako DAI eta ASIR eta erdi mailako



Szymon Starzak ikasle poloniarra.

SMR. Horren ondorioz, informatika azpiegitura handia dute: fibra optiko loturak, sareak, wifiak, web zerbitzuak...

### Finlandiatik taldea

Poloniarra denbora gehiagorako geratuko bada ere, Finlandiako ikasle taldea ere etorri da Eibarrera egun hauetan, aurretik Unikoek egindako bidaia bueltatuz. Eibar, Ermua eta Euskal Herria ezagutzeko ekintzekin batera (tartean, Guggenheim, Donostia, Arrate, elkarte gastronomikoak... bisitatuz), Uniko klase batzuetan ere izan dira hemengo klase dinamizak jabetzeko.

OINETAKO KONPONKETA  
AZKARRA

*Don Takón*

merkeena  
deskontuekin

BAITA...  
Giltzen kopia  
Konponketak  
(poltza, gerriko...)  
Larruzko artikuluen  
salmenta

639-236-774  
Ibarkurutze, 7 - behea

**KATU**

**KALE**

BIDEBARRIETA, 1

**TABERNA**

# LOR EZAZU



# 8 KO

## DESKONTUA

CEPSAko zerbitzuguneetan gasolina hartzeko.

## BAITA

# 6 € KO



opari txartela ere CEPSAko zerbitzuguneetan gasolina hartzen duzun bakoitzean.

Eibarko El Corte Inglésen 25 €-tik gorako erosketak eginez gero,  
%8ko deskontua(\*) lor ezazu  
CEPSAko zerbitzuguneetan gasolina hartzeko.

CEPSAko zerbitzugune hauetan erabiltzeko:

- BERRIZ: Eitua Plaza (Berriz)
- COPECELT: San Fausto auzoa, 2 (Elorrio)



(\*) Lehenengo 25 litrotan %8ko deskontua. 2011ko azararen 28ra arte aplikagarria, erregulazio bakanak. Deskontu hori beste eskaintza batzuekin batera erabiltzeko, CEPSAren berrizko berrazaldea deskontu horiek baino ez du. Oinarria CEPSAko zerbitzuguneetan erabiltzea. 6€-ko opari txartela El Corte Inglésen (Moda, Oinezko, Osasun, Jantzerik, eta Koral txartela) edo inguruko erabiltzaile 20 €-tik gorako erosketetan. Eskaintza hori indarrean egongo da 2011ko azararen 15ra arte.

# ROBERTO PEREZ JAUREGI: 40 urte... baiña memorixan


Beste sasoi batzuk ziran, aurreko mendeko 60. hamarkadaren amaierakuak. "Iraultza ala hil" eta halako esloganak pil-pillean zeguazen. Francoren diktaduria 40 urteko "kuarentenia" betetzeko bidian, gazte asko aurreko generaziñuaren egoneziñaren jabe, kartzelan eguazenen etorkizuna (heriotz zigorreri holan deittu ahal bajako) iñoiz baiño gehixago kanpuan eguazen mobilizaziñuen menpe... Burgosko prozesuaren hasieria da, eibartarrak epaile militarren aurrian, beste eibartar bati bizitza lotsagabe lapurtzen detsenian... Ordutik hona, beste berrogei urteko ibilbidia, bere izenak eta famelixaren lanak merezittako errekonozimenduaren billa.

**R**oberto Perez Jauregi. Izen horrek eibartar guztiori pizten desku zeozer. Orduan bizi ziraneri gogora ekartzen detse sasoi bateko borrokiaren biharra gauzak aldatzen juateko; geruago jaixo ziranak be ezagutzen dabe eta heriotz justifikaeziña izan zala ondo dakixe. Hor ikusten da bere famelixak urte guzti horretan egindako ahalegiñaren fruitua. Baita urtero, halako fetxatan, bera gogoratzeko herriko ezker abertzaliaren ingurukuak egindako ekitaldixak. Ahaztuak 1936-1977 taldekuak be eibartarraren alde egindakuaen biharren emaitza jaso dabe aurten eta biktimatatz onartua izan da, "diktadura sasoiaren persekuziñua eta biolentzia jasan zeben" artian sartu dabe-eta behintzat. Iaz, baiña, Eibarko Udalak egindako "terrorismuaren eta biolentzia politikuaeren biktimen aldeko omenaldixan"

ez zan kontuan hartu Robertoren famelixia eta ez eben ekitaldira deittu. Hori izan da oiñ osatutako Eibarko Ekimen Herritarrak Udalarai aurpegiratu eta jorkabidia zuzendu deixan eskatu detsana, 40 urte betetzen diran honetan antolatutako beste hainbat ekitaldiren artian.

## Herri Ekimenaren deialdixa

Aurreko astian Arrate Kulturarian egindako agerraldixan,



Eibarko Herri Ekimena bixarko antolautako ekitaldixen barri emoten. / FELIX MORQUECHO

sensibilidade askotako jendia- ren artian osatutako Herri Ekimenak, Robertoren figura gogoratziaz aparte, atzo bertan egittekoa zan hitzaldixa aurkeztu eben eta baita bixarko prestatutako aktuetaen herrixari parte hartzeko deittu. Holan, 12.00xetan, udaletxiaren aurrian agertu nahi da, "modu ho-

rretan sendiari alkartasuna erakusteko eta oiñ arte bizittako egoerarekin desadostasuna agertzeko". Jarraixan, 13.00-etan, eta Karmengo parrokiaren parkian eta Iparragirre kaliaren hasierian, Perez Jauregi gogoratzeko plakia ipiñiko da.

## Frankismuaren aurka

Orduko erregimenaren aurkako beste manifestaziño bat izan zan 1970eko abenduaren 4kua. Urkizu parkiaren inguruan, Iparragirre kaliaren parian, bala "galdu" batek 21 urteko gaztia harrapau ebanian. Bera moduan, beste edozeiñ izan zeikian. Baiña Roberto, Armerixa Eskolan ebillen ikasle ona izatiaz gaiñ, orduko egoeriaz arduratuta PCE (i) alderdiko militantia be bazan. Ez zan bera izan zauritutako bakarra egun har-

## ONDO GOGUAN!! -Jesus Mari Gisasola "Trunboi"-k jarrittako bertsuak)-

*Berrogei urtez isildu dute  
Robertoren heriotza  
demokrazia benetakoak  
sentituko luke lotsa  
inoren alde esku hutsian  
erabiliaz ahotsa  
armarik gabe zihoan arren  
jaso zuen bala hotza  
egun horretan erdibittu zen  
aita t'amaren bihotza*

*Berrogei urtez isiltasuna  
erraietako samiña  
lagun artean arindu zaie  
etxekoei bihotzmiña  
hauek badute aintzinatikan  
oroimenaren premiña  
sufridu dute eta ez gutxi  
beste hainbatek adiña  
biktima zein den aukeratzeko  
nork jarri du esamiña?*

*Hara Roberto borrokalaria  
libertadeen laguna  
adiskideok nahi dugu sortu  
oroimenaren eguna  
ekin ta ekin jardungo dugu  
zaittian zu ezaguna  
geroa, behintzat, izan dedila  
gaurkoaren oihartzuna  
ta etxekoek jaso bezate  
dagokien begiruna.*



ROBERTO PÉREZ JAUREGIZEN ERATILLETAREN 40. URTEREGINA  
40. ANIVERSARIO DEL ASESINATO DE ROBERTO PÉREZ JAUREGI

# EIBAR

-ABENDUA 2, OSTORNA / 2 DE DICIEMBRE, JUEVES

19:30etan / 19:30h. Amatean

HITZALDIA / CHARLA


"Benera ogle, Justitia ogle"

"Ezker Movenak, Ezker Justitia"

-ABENDUA 4, LABURBATA / 4 DE DICIEMBRE, SABADO

11:00etan / 11:00h. Erretiroan

OROWEHETZKO EKITALDIA / ACTO DE MEMORIA



tan, Manuel Gil Uriarte be zauritu eben-eta "indar errepresibua". Donostian beste lau egun egin zittuan Robertok, larri, abenduaren 8xan hiltzeko.

Burgosko epaiketa militarra salatzeko egin zan manifestaziñua eta hor Ion Etxabe, Enrike Gesalaga eta Mario Onaindia eibartarrak eguzen auzipetuta.

Hori gertatu zanetik, famelixak ibilbide gogorra egin bihar izan dau eta baita bidian bitzta laga be: holan, Robertoren ama Ali-ciak zigorrak gabeko krimen horren miña baretu gabe jua eta holan jarraitzen dabe aitta Casimiro, Jorge anaixa eta famelixa eta lagunak.

Ahaztuak taldekuak be urte asko daroiaz halako gertaerak estatuari errekonozidu deitan borrokatzen. Euren lanari esker, aurten apirilla-maiatzian Roberto "poliziak egindako tiruez hil zala eta famelixak konpensaziño ekonomikua jasotzeko eskubidia dakala" onartu arren, responsabilitadiak ez di-

ra depurau: "Ramon Sánchez Pizarro izan zan zazpi kargadore hustu zittuan polizia egun hartan eta Perez Jauregi zauritu ebana. Maillaz igo zebe gero eta Valladolideko Brigada Politiko-Sozialera bialdu. Behin jubilauta, lasai-lasai bizi da, bere gaiñetik zeguazen askok egitten daben moduan".

### Oihartzun haundiko epaiketia

Hori baliatu eben hamasei auzipetuak errejimenaren gabeziak goittik behera astintzeko. Abenduaren 3an hasi zan epaiketa, Ordovás koronela mahaiburu zala. Grebak eta mobilizaziñuak lehelengo egunetik, sei heriotza zigor eskatzen ziran-eta eta baita 752 urteko kartzela zigorrak. Europa eta Amerika osora zabaldu ziran protestak. Abenduaren 28xan epai-mahaixak zigorren barri emon zeban: bederatz heriotza zigor (eskatutakuak baiño hiru gehixago) eta 519 kartzela urte. Handik egun bira, Espaiñiako Gobernuaren ministro kontseilluak indultua emon eban, heriotza zigorren orde z bizitza osorako kartzela zigorra ezarriz

## Protagonistak esanak

**G**ure kartzelako borrokak eta epaiketa aretokuak kalekuarekin bat egin bihar eben Euskal Herri osuan eta baita Europan be frankismuaren aurka antolatzen ziharduten mobilizaziñuekin. Eibartarrok be jakin genduan gure herrixan Greba Orokorra antolatzen zihardutela.

Eta epaiketaren bigarren egunian, mobilizaziño haundixen oihartzunak jasotzen ari giñala etorri jakun barrixa: hildako bat eta hainbat zauritu Eibarren. Izugarrizko golpia, atsekabia, inpotentzia... eta erregimen hiltzaille horrekin akabatzeko gogo itzela.

Gertakizunak haunditu egiñ eben tribunalaren aurrian inputatuak izan eben kemena, eta baita Europa osuan, Estaduan eta Euskal Herrixan ematen ziharduten mobilizaziñuak. Robertoren argazkixa heldu jakun: 21 urte, gure adiñekua... Ez genduan ezagutzen, baiña gutarikua billakatu zan. Gure memoriaren zati bat izatera pasatu zan, gure bihotzetako muiñetan barneratu zan, eta hor jarraitzen dau betirako.

KOLDO AIZPURUA, JON ETXABE, ENRIKE GESALAGA, PATXI JAKA, JOSU IBARGUTXI

**R**oberto ezezaguna zan guztiz politikan. Baiña primerako mutilla, es-tudixuekin, famelixako giro progresistian hazittakua, langilleguaren aldeku eta, batez be, antifrankistia. Horregaittik hartu eban parte manifestaziño hartan. Askok gogoratuko dabe oindiok egun hartan egindako korrikaldixak, zelan bueltau ziran etxera. Berari tokau jakon, baiña beste edozeiñ izan ahal zan. Bere entierria be, zenbat represiño! Komitibia... ez detse, baiña, pasatzen lagako! Zementerixua hartuta! Gure herrixak bizi izan daben entierro zibil hunkigarrixena eta haundixena izan zan. Bildurra airian zeguan, baiña amorruta eta miña haundixaguak ziran.

ARRATE BERASALUZE

PREST

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ARETO NAUSICIAN  
Etorri auzinetik  
(sena emen)

## ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

**ARRASATE ABENDUAK 18**  
larunbata, 10:30.

Enpresagintza Fakultatea

**OÑATI ABENDUAK 11**  
larunbata, 11:00.

IRUN ABENDUAK 18

**larunbata, 11:00.**

## Dentistak

odontologia  
biologikoa eta orokorra  
terapia neurala

**miren albistegi sojo**

HELVIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14  
t. 943 201 721


T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAÑA**

**HORTZ KLINIKA**

**ARAT** Hortz Klinika

Hortz-osasuneko  
profesional talata  
zure zerbitzura



Hortz, konplexu eta  
kompletu harrarakin  
Hundelako kontrol...

PREBENTIBARREK: Tel. 943 20 18 51

**m bista eder**



Inbarrak  
gazte egiten garu

implante eta  
Hortz-Estetikan  
aditua

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxe: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17

# OSASUN



**GASTESI**

Hortz-Klinika

Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90



**IRAZABAL**  
clinica dental

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia**  
**ume eta**  
**helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
**hortz-klinika**

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**



**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia /  
Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato*  
*Eibarrés*

**Errehabilitazioa**  
**eta Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

**Urkizu 9 - behean**

**EGUNERO** (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxe - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es


## Estetika klinika

**abontza**  
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egunero, 6. behea - Tel.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

**Hemen zure tokia**  
**izan nahi baduzu**  
**deitu 943-206776**  
**telefono zenbakira**



# GGDA

## Fisioterapia




**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
ARRAQUETA, 20  
T.F.: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENENKO MAILAGARAI OSTEOPATIA  
901 kolegiatu zbkia. NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia  
- osteopatia  
- errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA

Juan Gisasola, 14  
Telefona: 943 12 70 78

## Okulistak



**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solainurtea  
943 20 19 82



**Clínica Oftalmológica RECALDE**  
Oftalmología Clínica

Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia

**HELBIDE BERRIA**  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**



BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746

**PODOLOGOA**  
Ereiko Klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOA**

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

*Iñaki Rivero Zabaleta*

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

**Tel. 943 20 86 41**

## Psikologoak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO  
PSIKOLOGIA  
KABINETEA



**Arrate Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO  
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66  
a\_garitaonandia@terra.es

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa



*Oscar Mondragon Lili*

Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia


**MADINA RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak  
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857





## Errepide zaindariak

**F**estan igaro dute gaua Ivan eta Pacok. Cienfuegosen egunero dago gauez irteteko aukera. Bada taberna batean edo bestean, diskoteka eta antzekoek gaueko hartzen dituzte 'salsa' eta 'reggaetia' dantzatu, eta maitasun kontuetan trebatu nahi duten kubatar eta bisitariak.

Cienfuegosen zein **Trinidad**en, **Viñales**en zein (nola ez) **Habanan**, jendeak ez dio orduari begiratzen ohera joaterakoan. Asteguna izanda ere, kalera irten eta ondo pasatzeko asmoa izaten du jendeak (ez denek noski, baina beti kopuru dezente batek). Herrialdearen, kulturaren edo jendearen ezaugarri bixia, Kuba berezia egiten duen ezaugarria, besteak beste. Jendearen bizi poza arazoak albo batera utzita.

Gustora zenbiltzan dantzan Ivan eta Paco, baina diskoteka itxi eta kalean jarraitu behar izan dute festa beste lagun batzuekin batera. Eguneko 24 orduetan zabalik egoten diren denda horietariko batean garagardoak hartu eta malekoian egin dituzte gaueko azken orduak eguzkiari ongi gorria eman aurretik.


Bada etxera bueltatzeko ordua. Ez Ivanek, ez Pacok ez daukate autorik, eta hobe horrela, biak edanean ibili baitira. Taxiak ez dira nabari Cienfuegoseko kaleetan oraindik, goizegi da turista bila irteteko. Gainera, gazte biek ez daukate taxia ordaintzeko adina diru. Festan ibili dira eta gauza biak egitea ez dago edonoren esku.



Trinidad



La Habana



Ke artean

Zorteko daude Ivan eta Paco. Ezagun bat autoan pasatzen da Prado kaletik eta errepide ertzean ikusten ditu biak. Autora igo eta bide erdia egiten dute harekin. 14 km. **Rancho Lunako** hondartza parean jaisten dira ea jendez betetako kamioi batek geldialdia egiten duen bertan edo, zergatik ez, autobus baten presentzia jasotzeko ohorea izaten duten esperantzarekin.

Bost ordu igarotzen dira euliz betetako hondartzaren errepide ertzean eseri zirenetik. Ez kamioirik, ez autobusik, ezta gidari eskuzabalik. Ez dira bakarrik bertan. Yolanda bere ama errepide alboko etxe batera eramana du, emakumeak ezin baitzuen tente gehiago aguantatu garraioaren zain bero handiarekin. Haratago hondartzan egon diren gaztetxo batzuk ikusten dira. Ivan eta Paco ez daude bakarrik.

Ez daude bakarrik eta ez dira bakarrik egongo errepidean. Autobide, herrien kanpoaldeko errepide eta edozein bidetan daude kubatarrek zain. Lanera joateko prest, senitartekoak ospitalera bisitatzeko, bakoitzaren herrira bueltatzeko edo, beste barik, herrialdean leku batetik bestera mugitzeko irtetzen dira denak errepidera agian bertatik pasako ez den garraioaren zain.

Ivanek belaunartean dauka burua. Lo dago. Paco zuhaitz-enborretik altsa eta jauziarekin Ivan esnatzen du. Kamioi bat da. 60 bat pertsona egongo dira barruan, bata-bestearen gainean. Bost axola, helmugara iritsiko dira. Ivan eskutik hartu eta muxukatu egiten du Pacok lasaitua hartuz. Badoaz etxera bueltan.







## AGÜR parte-hartze haundiko SANANDRESeri




**A**zken asteburuari begiratzuz gero, aurten jaixetan makillau eta txistorra zaporiak nagusi izan dirala esan geinke, baiña ez dira horrek izan dastatu ditugun gusto bakarrak. Izan be, Arrate Kultur Elkarteak antolatutako VII. Eibarko **Pintxo Lehiaketan** sekula baiño parte-hartze haundixagua egon da eta 27 tabernak presentautako pintxuen artian Pintxo Onenari Sarixa Iturri tabernakuak eruan dabe. Hortik aparte, epaimahaiko kidiak Oishi eta Etxola tabernerari aittamen berezi-a egin detse.

**ZAPATUAN** egun osuan egon ziran **Eibarko Txirrindularien Elkartekoak** Untzagan, hotzarekin sustau bari-k, karparen babesbian kilometro bat txistorra erretzen eta pintxuetan saltzen. Musika, jokuak eta bestelako ekitaldixak be antolatu zittuen. Gabari musikia, barriz, **Orquesta Mondragón** taldekuak ipiñi zetsen. Eta **DOMEKAN**, goizetik hasi zan makillau usaiña herrixan zabaltzen: XVIII. **Makillao Lehiaketak** 48 bikote batu zittuan eta lehelengo sarixa Peña Txinberako Juan Luis Vilanova eta Alex Bailerón-entzat izan zan, bigarrena Muskerrak alkatereko Jon Mikel Peña eta Jose Angel Puentek jaso eben eta hirugarrena Usobideko Oier Ibarbia eta Ander Barragán-ek eruan eben. Egunian bertan ospatu zan **Makillauaren Kofradixiaren** XVII. Kapitulu-a. Aurten ohorezko kofrade izendatu dittue José Antonio Azpilikueta artistia eta ...eta kitto! Euskara Elkarte-a (Juan Barahonak presidentiak egiñ eban juramentua). La Bacaladera enpresako José María Salvador de Laurentis be izendatzekua zan, baiña biajian eguan eta ez zan ekitaldira sasoz aillgau.

Eta **SAN ANDRES EGUNIAN** aspaldiko partez eguraldixa lagun izan eban azokak eta horrekin animauta jende askok hartu eban parte azokan eta azokaren inguruan antolatutakuetan. Jaixari agur esan aurretik, baiña, aurtengo irabazliak **sarixak** jaso zittuen: gazta onenak Idiazabalgo J. Aranbururena eta Olanorena (Egino) izan ziran; ogixetan, Jesús Zaldúa (Zumarraga) eta Maite Leanizbarrutia (Elorrio) saritu zittuen; barazkixetan, Debako Mirian Arrizabalaga eta Alejandro Arrieta saritu zittuen; frutetan, Tomás Maiora (Gabiria) eta Miren Intxaurrena (Berriz); eztxetan, Josune Epelde (Urretxu) eta Fernando Lizarralde (Oñati). Postu onenari sarixa Markiñako Alejandro Arrietak eskuratu eban eta Eibarko basarririk onenari sarixa, Aitor Gisasolak (Gisasola baserria) jaso eban.





**IPARRALDEKO PILOTARIAK LESIOA AHAZTU NAHI DU LEHENBAILEHEN** eta, lau eta erdiaren txapelketa kaxkarra egin eta gero, binakako neurketetara bueltatuko da domekan Astelenan. Beroizek zainduko dio bizkarra Aritz Lasak eta Zu-

## Xalaren berragerpena Astelenan

bietak osatutako bikotearen aurka jokatuko duen jaialdiko partidu nagusian. Aurretik, Retegi Bi eta Eulate (honi Aspek ez dio kontratua luzatuko) eta Olazabal eta Fernando Goñi bikoteak izango dira, nor baino nor. Jaialdia amaitzeko, Cabrerizo II.ak eta Arrutik Ongay-Cecilio bikoteari egingo diote aurre.

## 21 eibartar Donostiako maratoian

**DOMEKA GOIZEAN JOKATUTAKO DONOSTIAKO MARATOIAN** gure herriko 21 atleta izan ziren parte hartzen, horietatik bakarra emakumea.

3	Asier Cuevas	2:17:40
49	Jonan Rodríguez	2:39:30
488	Eduardo Uribe	3:03:37
527	Javi Aldai	3:05:51
596	Iosu Lahidalga	3:08:27
694	Aitor Muguruza	3:11:26
774	Zigor Iriarte	3:13:58
822	Iñaki L. Gereñu	3:14:27
996	Jose M <sup>a</sup> Gutiérrez	3:19:33
1.065	Ibon Muñoa	3:21:10
1.275	Ignacio Garai	3:27:01
1.318	Iñaki Serrano	3:28:00
1.390	Juanjo Larramendi	3:29:12
1.456	Juan Luis Azkune	3:31:57
1.462	Ibon Martín	3:31:43
1.490	Alex Telleria	3:32:29
1.789	Ana Ramírez	3:43:34
1.861	Iñigo Villaba	3:45:55
2.080	Iñigo Astigarraga	3:57:22
2.195	Luis Manuel De Blas	4:05:57
2.386	Fernando Serrano	4:33:37

Temperatura nahiko hotzarekin jardun zuten denek (5 gradu inguru), guztira 2.600 lagun inguru. Elijah Karanja keniarra izan zen irabazlea, 2h13'27"ko denborarekin; bere atzetik sailkatu ziren Rafa Iglesias eta Asier Cuevas eibartarra, podiuma osatzeko. Eibartarrak, bide batez, modalitateko Gipuzkoako txapela bereganatu zuten; hala ere, deseroso ibili zen Cuevas, denbora mordoa egin baitzuen bakar-bakarrik lasterketan. Emakumezkoetan, etiopiarrek izan ziren nagusi eta, 19 urteko Tirhas Enun (2h38'47") eta Tigist Gebrelassieren atzetik, Ana Casares iruñearra eta Espainiako txapelduna izan zen 3.a podiumeko kaxoian.



## Bihurri-Areso nagusi San Andres aizkolari torneoan

**ERNESTO EZPELETA NAGUSITU EGIN ZEN BESTE BEHIN** aizkolarien arteko San Andres torneoan. Zortzigarren edizioa jokatu zen astelehen arratsaldean eta 27 minuturen bueltan amaitu zuten euren lana irabazleak. Minutu eta erdiko aldea atera zioten Zubizarretak eta Agitek osatutako bikoteari eta segundo bat gehiago Zelaik eta Goizeder Beltzak osatutakoari. Azken bikote hauen artean izan zen benetako lehia, az-

ken korteak erabaki zuena; irabazleek, bestalde, aurrea hartu zuten seigarren enborrean, ordura arteko orekarekin apurtuz. Hiru bikoteek egindako lana zaletuak asetzeko modukoa izan zen, "egurra ere halakoxea izanda". Jende asko erakarri zuten zortzi kortera jokatutako torneoak, "batez ere, gazteen artean", eta San Andres jaietako aizkolarien proba klasikoa dugu dagoeneko, "finkatutako ekitaldia" adituen hitzetan.



## 250 gimnasta San Andres torneoan

**BALEARRAK, KATALUNIA, ARAGOI, ERRIOXA, MADRIL, GAZTELA-LEON ETA KANTABRIAKO** gimnastak izan ziren San Andres torneoaren XII. edizioan, Euskal Herrikoekin batera jakina. Eta errusiarrak izan ziren zapatuko gonbidatu bereziak: bertako azken txapeldunak (Anastasia Alexeeva, Alexandra Fokanova, Darina Kanaeva, Alena Korbukova, Polina Lapshenkova eta Katerina Sidorova) Natalia Orlova entrenatzailearekin izan ziren Ipuruan. Atzo hasita, bestalde, Ipuruako gimnastak Logroñon dihardute Espainiako txapelketa jokatzen.

## Glaziare eremuko alpinismo ikastaroa

**GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLAK ANTOLATUTA**, abenduaren 11n eta 12an emango da hastapen mailako ikastaro hori. Tena bailaran egingo da eta prezioa 105 eurokoa da eta plaza mugatuak ditu. Informazioa gehiagorako: [www.gmf-fgm.org](http://www.gmf-fgm.org) eta 943-461440.



Asier Cuevas eibartarra, bere semea besoetan duela, podiumean.

## Arrate-Cuenca 2016 gaur Ipuruan

**ASOBAL LIGAKO PARTIDUAN, ARRATE ESKUBALOI TALDEAK CUENCA** jasoko du gaur, 21.00etatik aurrera, Ipurua kiroldegian. Partidua garrantzitsua da oso, Gaztela-Mantxakoek hiru puntu kentzen baitzkie eibartarrei. Ipuruan jokatutako azken neurketan, puntu garrantzitsuak egin zien ihes Julian Ruizek entrenatutakoei eta ez da komeni berriro ere horrelakoak errepikatzea maila bereko taldeen arteko neurketetan.



Berrios, taldeko kapitaina.

## Eibar B - Elgoibar bihar, 18.00etan

**EIBAR FOBALL TALDEAREN BIGARREN TALDEAK, HAU DA, 3. MAILAKOAK** Unben jokatuko du bihar Elgoibarren aurka. Lari dabilta talde biak sailkapenean eta, Garitanok entrenatzen duen taldeak Zamudion irabazi zuen partiduari esker, Eibar B jaitziera postutik irten da, Elgoibarren bertan jarraitzen duen bitartean. Partidua 18.00etan hasiko da eta auzoko taldearekin iaz arte Eibar B entrenatzen zuen Iturbe etorriko da.



## Katu Kaleren bigarren garaipena

**DENBORALDIA AURRERA DOAN NEURRIAN, BADIRUDI SASKIBALOI TALDEAK MAILARI NEURRIA HARTZEN DIHOALA** eta, horrela, azken jardunaldian 54-63 nagusitu ziren eibartarrak Erreterian, Oiassori irabaziz. Garaipen horrekin igotzeko aukerak zabaltzen zaizkio berriro Eibarko taldeari, baina, horretarako, datozen jardunaldi bietan gogor jardun beharko du helburuari segika. Hilaren 11n Donostiako Inter-Lizardi hartuko dute Ipurua kiroldegian, asteburu honetako atsedenaldiaren ondoren.



## Eibar Foball Taldea lidergoari eustera relavegan

**AZKEN JARDUNALDIAN ALAVÉS GARAITU ETA GERO,** Eibarrek Torrelavegan jokatuko du, 17.00etan, partidu amaieran lider moduan jarraitzeko asmoz. 32 puntu dituzte Manixen mutilek, Alavések baino bi gehiago eta Mirandes, Real Unión eta Lemok baino lau gehiago. Kantabriako taldeak behera egin du azken jardunaldietan eta, horrela, etxean jokatutako azken hiru partiduak galdu dituzte; hala ere, talde indartsua osatzen dute.



Eskozia la Bravak bidaia antolatu du Torrelavegara joateko. Autobusa domekan bertan irtengo da, 10.00etan, eta prezioa 15 eurokoa da: sarrera ez da hor sartzen. Interesatuak gaur dute azken eguna Premier Bidaiek-en izena emateko.

## Urbatek gol batengatik galdu zuen

**AURPEGIA EMAN ZUEN, DENA DELA, EIBARKO TALDEAK ORBEAN** liderarren aurrean. Jarraitzaileak ere asko izan ziren eta, euren animoei esker, eibartarrek estu hartu zuten Sestao. Atsedenaldira 5nako berdinketarekin aldageletara joan eta gero, amaieran 10-11 nagusitu ziren bizkaitarrak Urbat-Urketronik-ekoan aurrean; eta segundo biren faltan berdinketa ere esku-eskura izan zuten eibartarrek, Unzeta kapitain handiak zutoinera bidali baitzuen azken jaurtiketa. Partidu borrokatua eta beroa, beraz; bihar, berriro Orbean, Oiasso-Bidasoa izango da bisitaria 14.30etan.



## Lau ordu eta erdi xakean

**DENBORA HORI BEHAR IZAN ZUEN HARITZ GARRO EIBARTARRAK** Azkoitian azken asteotan jokatu den Gipuzkoako txapelketaren azken jardunaldiko bere partida amaitzeko. Azken emaitza? Berdinketa. Klub Deportibokoan hurrengo erronkak Ibarro eta Arrasateko torneok izango dira (partida azkarretan biak).



## JAVIER ELKORO AZPIAZUren

**1. URTEURRENA (2009-XII-7)**

**Bere aldeko meza ospatuko da hilaren 8an (eguztana), 12.00etan hasita, San Andres parrokian**

Nahixan taldeak domekan disko berria aurkeztuko du Durangoko Azokan, 19.30etan. Eibarko Aitor Sologaistoarekin (gitarra) batera, Axular Arizmendik (ahotsa), Patxi Cabanillasek (bateria), Axier "Kiriketa" (baxua) eta Iñigo Larrinaga (gitarra) osatzen dute taldea.



## AITOR SOLAGAISTOA, musikaria: "Kartela oihu bat da horman, jendea"

- **Zelako ekitaldia eskaini behar duzue Durangon disko berria aurkezteko?**

Azokarako single berria eta diskoa prestatu ditugu, *Besarka nazazu* kantarekin. Diskoa aurkezteaz gain, kontzertu akustikoa eskainiko dugu, jendeak zuzenean dasta dituzan gure 3/4 kanta.

- **Zuen aurreko lanekin alderatuta, zelako desberdintasunak daude lan berrian?**

Soinua borobilagoa dela esango nuke, potoloagoa; era berean, gozoagoa ere bada, barnerakoiagoa.

- **Zelako bilakaera eman duzue taldean 2008an batu zirenetatik?**

Hasierako proposamena disko bat egitea besterik ez zen; baina, hala ere, nahiko maila altuan hasi ginen... ez zen izan saiakera bat bakarrik. Disko bi azkar batean kaleratu genituen eta iaz topera ibili ginen.

- **Kontzertu asko eskaini dituzue. Ez duzue geldirik denbora larregirik ematen, ezta?**

Bai, aurten ere diskoarekin buru-belarri sartu gara. Eta, dagoeneko, domekatik aurre-

ra, lotuta dugu martxora arteko kontzertuen egutegia.

- **Non dizango dituzue kontzertu horiek**

Beste batzuren artean, abenduan, hilaren 11n Arrasateko gaztetxean eta 17an Gasteizen; urtarrilean, 6an Bermeoko Kafe Antzokian eta 14an Tolosan; otsailean, 12an Mutrikuko gaztetxean eta 17an Bilboko Kafe Antzokian.

- **Nola definituko zenuke zuen musika?**

Gozoa eta zuzena da, zailantzarik gabe. Ikusleak gurekin bat egiteko modukoa, kantuan jarduteko egina.

- **Itsasoaren presentzia ere nabarmena da zuen abesti-tan, ezta?**

Argi dago. Orokorrean, itsasoaren ondoan bizi direnak beste era batekoak direlako (taldeko beste partaideak Mutriku eta Ondarrukoak dira). Eta barnekoak garenoin inspiratu egiten gaituelako. Hor ados gaude batzuk eta besteak.

- **Eibarren jotzeko asmorik?**


Ea maiatzaren bueltan... Diskoa entzutea nahi duenak, bestalde, Buenos Aires tabernan du salgai. Edo, bestela, [www.myspace.com/nahixan](http://www.myspace.com/nahixan).



## Deporreko argazkilariak martxa betean

**KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEKO JOSE VILAK LEHENENGO SARIA JASO DU** Gipuzkoako Galiziako Etxeak antolatutako lehen argazki lehiaketan, hiru argazkiz osatutako bildumarekin. Bestalde, eguaztenaz gerroztik eta abenduaren 31ra arte Nekane Lazkanoren "Roma G9" izenburuko argazki erakusketa ikusteko aukera izango da El Ambigú tabernan eta Portalea tabernan, berriz, Luis Larrakoetxearen argazkiak ikus daitezke. Eta Mikel Oroz-

kok, berriz, Bilboko Taberna de los Mundos-en abenduaren 7tik urtarrilaren 10era erakutsiko ditu bere argazkiak. Eta urtea amaitu aurretik, argazki ikusgarriekin gozatzeko beste aukera bat emango digute Deporrekoek, hilaren 10ean taldekako erakusketa zabalduko baitute Portalean. Urtarrilaren 9ra arte martxan egongo den erakusketan ia 30 argazkilarien lanak izango dira ikusgai, ohiko ordutegian (martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30-etara).



## Badator Xabinaitor

**GORRINGO ANTZERKI TALDEAREN ESKUTIK AILEGATUKO ZAIGU XABINAITOR SUPERHEROIAREN ISTORIOA** kontatzen duen antzezki-zuna. Anartz Zuazuak zuzenduta, antzezle ezagunak aurkituko ditugu eszenatokian: Asier Sota, Mikel Pagadi, Anjel Alkain, Egoitz Lasa, Ainere Tolosa, Mikel Laskurain eta Ixabel Agirre-

sarobe. Wazemank telebista-saioko lantaldearen eskutik jaiotzen Xabinaitor "poxpolina euskaldunak fabore sexualen truke salbatzeko prest dagoen mutiko gipuzkoarra" dugu, gure superheroi partikular eta berezia. Hilaren 17an 20.30etan taularatuko duten lanerako sarrerak 10 eurotan eros daitezke ohiko bi-deei jarraituz.



## Kantu Kantari Euskararen Egunean

**GAUR EUSKARAREN EGUNA DA ETA, HORI OSPATZEKO, EIBARTAR ASKOK KANTUAN EMANGO DUGU EGUNA**, Udalak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek, Kutxa eta Eibar Merkataritza Gune Irekiaren babesarekin antolatutako ekimenarekin bat eginda. Goizean DBH eta Batxilergoko ikasleak ibili dira kantuan eta bazkalostean, berriz, ikasle gazteagoek hartu dute erreleboa: 17.30ak arte Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako umeez jardungo dute kantuan, Untzaga eta Toribio Etxebarria inguru horretan. Ondoren, 18.30etatik aurrera eta 21.30ak bitartean herriko elkarte, erakunde eta taldeetako ordezkariak batuko dira Untzagan, parte hartzera animatu nahi duten beste herritar guztiekin batera.



63 elkarte hartuko dute parte, ikastetxez gain, gaurko ekitaldian. / AINARA LABADO


Toribio Etxebarria kalean kalejiran ibili ondoren, Untzagan amaituko da ekitaldia.

Kalejirarako laguntzaile bereziak izango dira: Cielito Musika Banda, Usartza Txistulari Banda, Ustekabe fanfarrea, Jainagaren eskolako ikasleak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoak, Sostoa, Goruntz eta Kaleetan Kantuz abesbatzak... Hala ere, antolatzaileek azpimarratu dutenez, "gaurko protagonistak eibartarrak eta

bertako elkarte eta erakundeak izatea nahi da. 63 elkarte eta erakunde animatu dira kantukalejiran parte hartzera". Kalejiran abestuko diren kantuak ezagunak izango diren arren, letra ez jakitea ezin izango da parte ez hartzeko aitzakia izan, kalejirarako kantu-liburuak banatuko dira eta. Kalejira amaituta, gainera, Untzagan bertan txorizoa eta ardoa dastatzeko aukera paregabea izango dute parte hartzaile guztiak.


## Harixa Emoten hilaren 14an

**HILAREN 14-AN (MARTITZENA), 19.00-ETATIK AUERRERA HARIXA EMOTEN** literatura tailerraren saio berria hartuko du ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzak (Urkizu, 11 solairuartera). Egun horretan Lander Garro idazlearen "Kontrarioa" liburuaren inguruan jardungo dute parte hartzera animatzen diren guztiak, Antxon Narbaizaren eskutik garatuko den solasaldian.



## Helmholtz organo-kontzertua

**PEDRO ZELAI A KULTUR ELKARTEAK ANTO-LATUTA, XIV. ARETO ORGANO KONTZERTUA** hartuko du Coliseoak datorren astean, egunean, 20.00etatik aurrera. Kontzertuan bereziki emanaldi horretarako prestatutako organoa erabiliko da: "Hammond C3 kotsolan Eibarren egindako Helmholtz etxeko Church modeloko organoaren makineria osoa biltzen duen organoa erabiliko da. Horrela, 60ko hamarkadako firma eibartarra eta amerikarra zein punturaino bateragarriak ziren erakutsiko dugu". Kontzertura doazenei, gainera, Eibarko Industriaren Museoa bisitatzeko gonbidapenak oparituko diete. Museoa ikusgai dauden piezen artean, besteak beste, Helmholtz organo bat dago.



## laburrak

### SANCHEZ VALLEJOREN LIBURUA

Juan Sánchez Vallejo sendagileak "En busca de la salud perdida" bere azken liburua aurkeztuko du hilaren 16an, 19.00etan Portalean. Psikiatra honek bere lanean jasotzen duenez, jendeak gero eta arreta gutxiago eskaintzen dio bere osasunari eta gero eta errazago jotzen ohi dugu sendagai bila, horiei esker edozein arazori irtenbidea emango diogulakoan.

### REIKI IKASTAROA

Hilaren 18an eta 19an Reiki I ikastaroa emango dute Eibarko Reiki Zentruan. Informazio zehatzagoa jasotzeko edo izena emateko 665743217 telefono zenbakira deitu daiteke (Martin).

### OIER ARAOLAZA, KULTURAREN KONTSEILUAN

Blanca Urgell Kultura sailburuak Kulturaren Euskal Kontseiluko 32 kide berri izendatuko ditu hilaren 13an egingo den bilkuran eta tartean Oier Araolaza eibartarra izango da. Dantzan.com-eko zuzendaria "euskal dantza tradizionalan aditu" gisara aukeratu dute.



**JOKIN ETA ESPE**

**30.**  
urteurrena

*Ez zaituztegu*




**ROBERTO PEREZ**

**40.**  
urteurrena


*ahaztuko!!*

Eibarko Ezker Abertzalea



## Gaur zabaldu da Durangoko Azoka

**HILAREN 8-RA ARTE MARTXAN EGONGO DEN DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA** gaur zabaldu dute. Azken urteotako martxari jarraituta, Gerediaga Elkarteak bultzatutako azoka Landako Erakustazokan bisitatzeko moduan izango da, 10.30etatik 20.30etara. Aurten 45. edizioa beteko duen azokak berri ere euskalgintzako azken argitalpenak batuko ditu, euskal kulturarentzat urteroko zitarik garrantzitsuena bilakatu den honetan. Azokari buruzko informazio guztia [www.durangokoazoka.com](http://www.durangokoazoka.com) webgunean aurkituko duzue. Horrez gain, azokako egitarau osoa, planoak, momentuko sinadurak... eta bestelakoak Facebook ([www.facebook.com/Gerediaga](http://www.facebook.com/Gerediaga)) eta Twitter ([www.twitter.com/Gerediaga](http://www.twitter.com/Gerediaga)) bidez jarraitzeko aukera izango da.



## Exfibar domekan itxiko dute

**DOMEKARA ARTE IKUSGAI EGONGO DEN EXFIBAR XLI. SEILU ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOAN BERTAN** banatu zituzten aurtengo edizioeko sariak: Jesús García eraman du Erakusketa Sari Nagusia; filatelia tradizionalari eskainitako A taldean Francisca Martínez, Javier de Sebastián eta Antonio Márquez saritu dituzte; B taldean (historia postala) Luis M<sup>a</sup> Domínguez; C taldean (tematikoa) Juan Manuel Cerrato, Antonio Tristán, José Miguel Pernia, José Freijanes,

Antonio Gutierrez eta Roberto Murga; F taldean (maximofilia) José Carlos López; I taldean (irekia) Segundo Heredia eta Feliciano Vez; eta lehiaketatik kanpora, musikari eskainitako bildumekin José M<sup>a</sup> Etxaniz eta José Angel López saritu dituzte epaimahaiak. Usartza Txistulari Banda omendu duen erakusketa ordutegi berezian bisitatu daiteke Portalean: gaur 18.00etatik 20.00etara eta bihar eta etzi 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.

## “Olentzero & Co!” bihar Coliseoan

**BIHAR, 17.30-ETAN ETA 20.00-ETAN, “OLENTZERO & CO!” MUSIKALAREN ESTREINALDIA** hartuko du Coliseo antzokiak. Oihan Vega eta Txemi Etxebarriak sortutako musikalak 150 lagun batuko ditu taula gainean: besteak beste antzerkia, koroa, dantza, zinea eta txotxongiloak tartekatuko dira ikuskituz. Olentzerori buruzko musikal berezia da bihar erakutsiko dutena. Olentzerok euskal mitologiako hainbat pertsonaia (lamiak, iratxoak, Anbotoko Mari...) izango ditu aldamenean eta, gainera, betiko gabon kantuekin batera musika elektronikoa eta rock, pop, eta doinu latinoak tartekatuko dituzte. Sarrerak 15 euro balio du.



## Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak


**HILAREN 11-N ETA 12-AN PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS PAILAZOAK** Hezkuntza Esparruan izango dira, azken ikuskizuna aurkezten: “Ongi etorri Pupu eta Lore!”. Oraindik ere saio guztietarako sarrerak gelditzen dira ...eta kitto! Euskara Elkartearen eta e&m argazkidendan (azken honetan zapatuko 16.30etarako saiorako txartelak amaitu dira). El Tío Palancas eta Gozokin sarrera guztiak amaitu dira. Bestalde, Firestonek egun bietan aparkalekua erabiltzeko aukera emango die bertara automobiler joandakoei, baina antolatzaileek ahal dela tranbia erabiltzeko aholkatzen dute.

## Olentzerori gutunak eta Guai-a

**OLENTZERORI IDATZITAKO GUTUNAK JASOTZEKO BUZOIAK ABENDUAREN 9-TIK 17-RA BITARTEAN** egongo dira ipinita Portalean eta Pegorran, nahi duten ume guztiek euren kartak bertan sartzeko aukera izan dezaten. Gogoan izan gutuna bidaltzen duten ume guztien artean zozketa egiten dutela eta aukeratutako umei hilaren 24an, kalejiraren aurretik, Olentzerok eskura emango diela oparia. Bestalde, Guai gabonetako parkea abenduaren 26an zabalduko dute Armeria Eskolan eta bertara egunero sartzeko balio duten bonoak abenduaren 13tik 16ra egongo dira salgai (12 euro), Astixan (Zezenbide, 7), 09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 18.00etara. Bestela, egun bakarrerako sarrerak 3'5 eurotan salduko dituzte Guai-n.

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, IZARO, hillaren 1ian hiru urte egin zenduazelako. Aitaxo, amatxo, aitxixa-amamak, osaba-izekok eta lehengusuen partez.




Zorionak, MAIALEN Lado Gisasola, hillaren 1ian 10 urte egin zenduazeten-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, MARTXEL politta, hillaren 13an hiru urte egingo dozuz-eta. Zeiñ handi, ufaaa! Aitaxo, amatxo eta Iraiaren partez.



Zorionak, AINHOA Egurrola, bixar urtebete egingo dozuz-eta. Laztan haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, MARTIN Elortza, hillaren 7xan urtebete egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JUNE, hillaren 10ian lau urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ANDREA González, atzo 18 urte egin zenduazeten-eta, Famelixaren partez.



Zorionak, JOSE MARTIN eta PAKITA, zuen urrezko-ezteietan, seme-alaba eta billoben partez. Asko maite zaituztegu.

## SUDOKUA

1			2	3	9
6	5				
2		5			1
9	4		5	8	
		9	8		
	2	6		9	1
	8		7		2
				4	6
5	9		6		3

### JAIOTAKOAK

- Edurne Fernandez Vázquez. 2010-XI-16.
- Nora Ulazia González. 2010-XI-20.
- Alejandro Merino Arnaiz. 2010-XI-20.
- Maddi Oliveira Montaña. 2010-XI-25.

### HILDAKOAK

- Jose Ignacio Peinado Maiora. 52 urte. 2010-XI-24.
- Fidel Sáez Hernández. 102 urte. 2010-XI-24.
- Antonio Sevilla Quintana. 61 urte. 2010-XI-25.
- Jesus Martínez Abad. 79 urte. 2010-XI-26.
- Jose Antonio Gisasola Arrieta. 65 urte. 2010-XI-26.
- Patxi Bengoetxea Aranguena. 90 urte. 2010-XI-27.
- Jesus Sesma Arbeloa. 83 urte. 2010-XI-30.
- Concha Zuazo Alberdi. 89 urte. 2010-XI-30.
- Constantino Hidalgo Campollo. 73 urte. 2010-XI-30.

## zinea Colliseoan

**5ean: 17.00/19.30**  
**6an: 17.00/19.30**  
**7an: 17.00/19.45/22.30**  
**8an: 17.00/19.30**

### "Pan negro"

Zuzendaria: **Agustí Villaronga**  
 Aktoreak: **Marina Comas, Francesc Colomer, Nora Navas, Roger Casamajor**



Gerra Zibila amaitu berri, Katalunian, gizon baten eta bere semearen hilotza aurkituko ditu Andreu izeneko ume batek. Agintariak Andreuren aitak hildakoak direla esango dute, baina umea ez dago ados eta egia zein den jakingo duela erabakitzen du...

**5ean: 19.30**  
**6an: 19.30**  
**7an: 22.30**  
**8an: 19.30**

### "Skyline"

Zuzendaria: **Strause anaia**  
 Aktoreak: **Eric Balfour, Scottie Thompson, David Zayas, Donald Faison**




Stephen Hawking-ek esan du: "Lurretik kanpo badago bizitarik eta etorritz gero, beldurto egin beharko ginatete". Lagun talde bat jai batetik etorri berri hasiko da extralurtarren inbasioa. Lurra desagertzen doanean, euren bizitza salbatu beharko dute...

**5ean: 17.00**  
**6an: 17.00**  
**7an: 17.00/19.45**  
**8an: 17.00**

### "Mystikal" EUSKERAZ

Zuzendaria: **Angel Alonso G<sup>o</sup>**  
 Aktoreak: **Iban Garate, Savitri Ceballos, Maite Agirre, Kiko Jauregi**



Orain dela urte asko, Lurrean gaiztakeria zen nagusi, baina botere handidun hiru aztik Gerra, Izurritea eta Gosearen aurka egin eta hiru kutxatan sartu zituzten. Eldyn azti gazteak hankasartzea egingo du eta Gerra askatuko da horren ondoren...

**5ean: 17.00/19.30**  
**6an: 17.00/19.30**  
**7an: 17.00/19.45/22.30**  
**8an: 17.00/19.30**

### "Megamind" 3D

Zuzendaria: **Tom McGrath**  
 Pertsonaiak: **Megamind, Metro Man, Roxanne Ritchi, Hal/Titán**



Inoiz egon den supergaizkilerik handiena da Megamind; urteetan Metro Man izan da bere aurkari nagusia eta azkenean hiltzea lortu du. Aspertuta dago... ez du areririk! Titán superheroia sortzea pentsatzen du, baina honek supergaizkile izan nahi du

## horoskopoa

**ARIES**

Zortea zure alde duzu, Aries. Zure ametsak egia bihurtzeko aukera izango duzu aste honetan. Beraz badakizu, aprobetxatu!

**TAURUS**

Burugogorregia zara. Besteen iritzia errespetatzen baduzu ere, besteek esandakoa betetzea kostatzen zaizu, malguagoa izan.

**GEMINI**

Indartsu eta kementsu hasi zenuen ikasturtea, baina orain dena aldatz gora egiten zaizu. Eutsi goiari Gemini! Animo!

**CANCER**

Gehiago zaindu beharko zenuke, hotz egiten hasi da eta zuk udako arropa finak erabiltzen jarraitzen duzu. Atera berokia!

**LEO**

Zu ez zara erraz maitemintzen den horietakoa, baina oraingoa Cupidoren geziak bihotz erdian jo ditu. Hori da zoriona, hori!

**VIRGO**

Nora zoaz itxura horrekin, Virgo? Norik esan dizu orrazkera horrek altuagoa egiten zaituela? Kendu tupe hori behingoz, faborez!

**LIBRA**

Zure buruarekin duzun haserrea besteekin ordaintzen duzu eta horrek ondorio larriak ekarriko dizkizu. Aldatu jarrera hori.

**SCORPIUS**

Orain dela gutxi ezagutu duzun pertsona bat zurekin erabat maiteminduta dago. Ez itxi bihotza esperientzia berriei.

**SAGITTARIUS**

Azkeneko hilabeteak arraro samarrak izan dira zuretzat; ez duzu lasaitzeko astirik izan. Baina gauzak aldatzen doaz.

**CAPRICORNIUS**

Aste ona izango duzu, baina diru kontuekin tentuz ibili behar duzu. Azken aldian asko, gehiegi, gastatzen duzu kapritxoetan-eta.

**AQUARIUS**

Non duzu burua, Aquarius? Azken aldian dena ahazten zaizu. Apur bat gehiago kontzentratu beharko zenuke. Ahalegindu!

**PISCIS**

Onegia zara: beti laguntzeko prest. Baina, kontuz, zure inguruan dauden pertsona azkar batzuk aprobetxatu egiten dira horretaz.

**Barixakua 3****EUSKARAREN EGUNA**

**18.30.-** Eibar Kantu Kantari Euskararen Egunean. Herritarak eta herriko kolektibo eta taldeetako ordezkariak abestuko dute. Untzagan.

**INAUGURAZIOA**

**19.00.-** Karrika tabernaren inaugurazioa.

**KONTZERTUA**

**22.00.-** Dani Gascón-en kontzertua. Santana aretoan (Bilbon).

**Zapatua 4****ROBERTO PEREZ JAUREGI GOGOAN**

**12.00.-** Kontzentrazioa Untzagan. **13.00.-** Bere omenezko plaka Karmen kalean.

**IKASTAROA**

**17.00.-** Mus ikastaroa. Errota gaztelekuan.

**MUSIKALA**

**17.00 eta 20.00.-** "Olentzero&Co!". Sarrera: 15 euro. Coliseoan.

**Domeka 5****IKASTAROA**

**17.00.-** Mus ikastaroa. Errota gaztelekuan.

**Astelehena 6****MUS TXAPELKETA**

**18.00.-** Mus Txapelketa. Errota gaztelekuan.

**Martitzena 7****MUS TXAPELKETA**

**18.00.-** Mus Txapelketa. Errota gaztelekuan.

**Eguaztena 8****MUS TXAPELKETA**

**18.00.-** Mus Txapelketa. Errota gaztelekuan.

**Eguena 9****IKASTEN**

**10.00.-** "Peritación caligráfica", Marisa Iglesias-ekin. Armeria Eskolan. **16.00.-** Sendabelarren Foroa: Lore-arte. Portalean.

**EGO IBAR ZINE KLUBA**

**17.00 eta 21.00.-** "Ella, una joven china" (Zuz: Xiaolu Guo). Hezkuntza Esparruan.

**KALEETAN KANTUZ**

**19.30.-** Kaleetan Kantuz. Entsegua. San Andres elizako lokalean.

**HITZALDIA**

**19.00.-** "Nafarroaren Konkista" DVDaren proiektzioa eta mahai-ingurua. Angel Rekalde. Arrate Kultur Elkartearen.

**KONTZERTUA**

**20.00.-** XIV. Areto Organoaren Kontzertua. Helmholtz 2010. Pedro Zelaia Elkarteak antolatuta. Sarrera: Euro 2. Coliseoan.

**Zapatua 11****IGERIKETA**

**15.30.-** Eibarko XXII. Igeriketa Gabon Kopa. Ipurua kiroldegian.

**PAILAZOAK**

**16.30 eta 19.00.-** Pirritx eta Porrotx-en "Ongietorri Pupu eta Lore!". Hezkuntza Esparruan.

**FUTBOLIN TXAPELKETA**

**17.00.-** Futbolin txapelketa. Errota gaztelekuan.

**KALEETAN KANTUZ**

**19.30.-** Kaleetan Kantuz-ekoan irteera. Untzagatik hasita.

**Domeka 12****PAILAZOAK**

**16.00 eta 18.30.-** Pirritx eta Porrotx-en "Ongietorri Pupu eta Lore!". Hezkuntza Esparruan.

**Astelehena 13****GUAI-RAKO BONOAK**

**09.00-13.00 eta 15.00-18.00.-** Guai Gabonetako Haur parkerako bonoen salmenta (12 euro). Astixan (Zezenbide, 7).

**Martitzena 14****IKASTEN**

**10.00.-** "Peritación caligráfica", Marisa Iglesias-ekin. Armeria Eskolan.

**HARIXA EMOTEN**

**19.00.-** Literatura tailerra, Lander Garroren "Kontrarioa" liburuaren inguruan, Antxon Narbaizaren eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuarean).

**HITZALDIA**

**19.30.-** "Etika eta ingeniaritza genetikoa" hitzaldia, Pablo Aresoren eskutik. Portalean.

**Eguaztena 15****IKASTEN**

**10.15.-** Aretxabaleta ingurura mendi-ibilaldia egiteko irteerarako autobusa. Ego-Gainetik.

**Eguena 16****EGO IBAR ZINE KLUBA**

**17.00 eta 21.00.-** "La nana" (Zuz: Sebastián Silva). Sarrera: Euro 2. Hezkuntza Esparruan.


**LIBURU AURKEZPENEA**

**19.00.-** "En busca de la salud perdida". Juan Sánchez Vallejo. Portalean.

**HITZALDIA**

**19.30.-** "El paradigma navarro", Koldo Martínez Gárate-ren eskutik. Arrate Kultur Elkartearen.





## erakusketak

- Abenduaren 5era arte  
**EXFIBAR** seilu-erakusketa. *Portalean.*
- Abenduaren 23ra arte  
**SAIOA CABAÑAS** argazkilariaren "Gauilunak" erakusketa. *Karrika tabernan.*
- Abenduaren 31ra arte  
**NEKANE LAZKANO**ren "Roma G9" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- LUIS LARRAKOETXEA**ren argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- Abenduaren 7tik urtarrilaren 10era arte  
**MIKEL OROZKO**ren "Berlin in Furs" argazki erakusketa. *Taberna de los Mundos-en (Bilbo).*
- Abenduaren 10etik urtarrilaren 9ra arte  
**EIBARKO KLUB DEPORTIBO**ko Argazki Taldekoen erakusketa. *Portalean.*

## ikastaroak

- "Eraiki zure etorkizuna".  
(50 urtetik gorakoendako heziketa-plana)  
Informazioa eta izen-ematea: *Abenduaren 10a baino lehen*, Debegesan (943-820110 telefono zenbakian).

## lehiaketak

- **Toribio Etxebarria Sariak 2010.**  
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 24ra arte*, [www.bicberrilan.com](http://www.bicberrilan.com) helbidean.
- "Aratosteak 2011 Eibarren" kartela.  
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 28ra arte*, Pegoran.
- **Narruzko Zezen Sariak.**  
(Antzez Artikulo eta Gidoientzako)  
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 28ra arte*, Hezkuntza Esparruan (943254465 telefono zenbakian).

## sarrerak salgai

- MUSIKALA "Olentzero & co!":** *Abenduak 4. 17.30etan eta 20.00etan.*
- MUSIKA XIV. Helmholtz kontzertua:** *Abenduak 9. 20.00etan.*
- ANTZERKIA "Xabinaitor hemen dago":** *Abenduak 17. 20.30etan.*

## farmaziak

- 3, barixakua**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 4, zapatua**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 5, domeka**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 6, astelehena**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 7, martitzena**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 8, eguaztena**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 9, eguena**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 10, barixakua**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 11, zapatua**  
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 12, domeka**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 13, astelehena**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 14, martitzena**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 15, eguaztena**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 16, eguena**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 17, barixakua**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

## telefono jakingarriak

- SOS delak** .....112
- Pegora** .....010
- Udaletxea** .....943 70 84 00
- Portalea** .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa**.....943 20 15 25
- Mankomunitatea**943 70 07 99
- Debegesa**.....943 82 01 10
- KIUB** .....943 20 38 43
- Epaitegia** .....943 03 34 00
- Iberdrola** .....901 20 20 20
- Naturgas** .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak**.943 46 46 22
- Gurutze Gorria**..943 22 22 22
- Mendaro osp.**....943 03 28 00
- Anbulategia**.....943 03 25 00
- Torrekoa**.....943 03 26 50
- Errepideak**.....902 11 20 88
- Ertzaintza** .....943 53 17 00
- Eusko Tren** .....902 54 32 10
- Pesa** .....902 10 12 10
- Taxiak**.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.** ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen** 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

– Pisua salgai Juan Antonio Mogelen. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Aukera ezin hobea. Tel. 659-508607.

### 1.2. Errentan

– Pisua alokagai Amañan. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua. Tel. 646-484230. Aitor.

– Logela behar da konpartitzeko. Tel. 688-819475.

– Ermuan pisua alokagai. 3 logela. Igogailuarekin. Argitsua. Tel. 661-653160.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo Bergaran. Tel. 663-451436.

– Logela alokagai. Komun propioarekin eta sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Berogailua. 350 euro. Tel. 605-908924.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Honda Civic autoa salgai. 115cv. 120.000 km. Egoera onian, beti garajian. Extra guztiakin. Tel. 656-416597.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Eibarko erdialdean 70 m<sup>2</sup>ko lokala alokagai. Komuna eta barrarekin. 20 urtetik gorako gazteentzako modukoa. Tel. 679-425467.

– Asua-Errekan garajea alokagai. Tel. 678-436136.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da asteburuetan umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-081763. Maitte.

– Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 630-410724. Dora.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-972690.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko (orduka) eta umeak zaintzeko. Tel. 680-463892.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 686-234612.

– Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.

– Estetizista eskaintzen da, homologatutako tituluarekin. Esperientzia. Tel. 620-707210.

– Emakumea eskaintzen da gauzez edo arratsaldez nagusiak zaintzeko. Tel. 618-052967.

– Emakumea eskaintzen da kamarera moduan jarduteko, gauzez edo arratsaldez. Tel. 696-246962.

– Neska eskaintzen da (abenduarren 20tik urtarrilaren 18ra) nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 943-531675.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Erreferentziak eta esperientzia, batez ere gauzez ospitalean. Tel. 688-603298.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko (formakuntza bereziarekin) eta sukaldari laguntzaile moduan. Esperientzia ere nekazaritzan eta baserrian lan egiten. Tel. 662-552464.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka eta gauzez. Tel. 680-223378.

– Neska eskaintzen da dendari-laguntzaile moduan edo edozein lanetarako. Tel. 648-190651.

## 4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 655-384877.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 662-252150.

– Geriatria laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Prezio onean. Tel. 695-898349.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 692-691964.

– Neska eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 676-035738.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 608-147559.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 648-603029.

– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-127400 edo 629-889465. Miren.

– Neska eskaintzen da 10.00etatik 17.00etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 679-910991.

### 4.2. Langile bila

– Estetizista eta masajista den pertsona behar da Eibarko estetika zentro batean. Tel. 943-200345.

– Estetizista behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Tel. 943-531636.

– Kamarera behar da asteburuetarako Eibarko taberna batean. Euskeraz badaki hobeto. Esperientziarekin. Tel. 669-977225.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Ingeniaritza ikaslea eskaintzen da klase partikularrak emateko. LH, DBH eta Batxilergoa. Tel. 628-665220.

– Magisteritza eta Pedagogia tituludunak LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditu, ikaslearen etxera joateko aukerarekin. Tel. 606-257620.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Jaio-berriarentzat karroa salgai. Arrue markakoa. Ia berria eta oso egoera onean. 180 euro. Tel. 609-737591.

– Border collie txakurkumeak (arrak) salgai. Urriaren 9an jaiotakoak. Tel. 630-030144.

– PSP kontsola morea salgai. Berria. Osagarriak eta ordenagailurako hiru joko opari. 120 euro. Tel. 606-921127.

– Lur saila salgai. 21.000 m<sup>2</sup>: 15.000 Maxpen eta 6.000 Kalamuan. 60.000 euro. Negoziagarriak. Tel. 965-876118 edo 649-445104.

– Ibiltzeko zinta salgai. Tolesgarria eta indikadore elektronikoarekin. Egoera onean. 40 euro. Tel. 670-772928. Mikel.

– Ardanegi edo "vinoteca" berria salgai. Zozketan egokitutakoa. Erabili barik. 32 botilarentzako lekuarekin. Tel. 672-428273.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Emakumearen urrezko pultsera galdu da San Andres egunean. Balio sentimental. Eskertuko da. Tel. 943-207785

– Hilaren 15ean eguzkitarako be-taurrekoak aurkitu nituen Erreka-txun. Tel. 690-311429. Pilar.

# Urtebete eibartarron zerbitzura

**KAZUELITAK  
BARRAN**

**KARTA SASOIKO  
PRODUKTUEKIN**

**EGUNEROKO  
MENUA**

**Eskerrik  
asko  
guztioi**



**EIBARKO BATZOKIA**  
Ego Gain, 1 - behea

Tfnoa. 943 25 72 80  
[www.baibatatzokia.com](http://www.baibatatzokia.com)

Betiko  
sukaldaritza  
oinarritzat  
hartuta,  
baina  
berrituta.



## Hortzordeekin arazoak?



**Goiko  
hortzordeak**

- ✓ Janarien zaporea blokeatzen du
- ✓ Plastikoa artifiziala
- ✓ Itsasgarri likatsuak
- ✓ Hozkada ahula
- ✓ Goragaleak
- ✓ Egoera deserosoak



**Goiko aldeko  
implanteak**

- ✓ Ahosabai garbia
- ✓ Plastikorik gabe
- ✓ Itsasgarririk gabe
- ✓ Hozkada indartsua
- ✓ Goragalerik gabe
- ✓ Ustekaberik gabe

Zure hortzordeek jaterako oztopo bihurtu zaizkizu eta zure irribarrea eta itxura lehengoak ez izatea ekarri dizkizute? Orduan, zertarako xahutuko duzu zure dirua adabakietan? Badira soluzio **BERRIAK** implanteetarako aurrez baztertutako lagunentzat.

**Deituiguzu 902 468 209ra eta korreoz bidaliko dizugubestelako informazio guztia.**

*Jan eta barre egitea zoragarria izan daiteke berriro!*

Ibarbea Zehar., z/g (Rialto Zehar.) EIBAR [www.esteticadelasonrisa.com](http://www.esteticadelasonrisa.com)



Andoni Guisasola Ron Dokorea  
R.P.S. 156/5

## TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak




**Estaziño kalea, 8  
Tel. 943 70 23 78**

**BERRIA**

**T. Etxebarria, 7  
Tel. 943 70 23 84**

**Jaka  
Ezkarai  
eta inguruak**



ERAIKUNTZA  
BERRIKO  
ETXEBIZITZEN  
SALMENTA  
JAKA,  
EZKARAI  
ETA  
INGURUETAN



# EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea  
Tel. 943 20 03 58

## FINKAK

[fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)